



## **STEILASek Pentsio Sistema Publikoaren aldeko mobilizazioetan parte hartzera dei egiten du**

STEILAS sindikatuak Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak datorren astelehena, urriak 1 pertsona nagusien egunerako deitua duten mobilizazioan parte hartzera dei egiten dugu.

STEILASek argi dauka gaurko gizartean daukagun arrakala soziala txikitzeko eta euskal jendarte justu eta solidario izateko tresna nagusia aberastasunaren banaketa ekitatitaboa dela. Hori lortzeko ezinbestekoa da kaptalaren interesen gaintetik pertsonak eta hauen izanbeharrak erdigunean jartzen dituen politikak burutzea.

Eta politika hauek pentsio sistema publikoa eta guztiek bizitza duina izan dezaten gutxieneko pentsioa izatea bermatu behar dute. Horrexegatik STEILASek bere egiten ditu pentsiodunen mugimenduaren aldarrikapen guztiak :

- Gutxiengo pentsioa 1080 €koa izatea
- Pentsioen igoera, bizitza-garestitzearen neurrikoa.
- Emakume eta gizonen pentsioen arteko arrakala gainditzea.
- Pentsioak gutxitu eta pribatizatu eta lana prekarizatzen duten pentsio eta lan-erreformak, ezabatzea.

Instituzioei exijitzen diegu pentsiodunen aldarrikapenak, legez, berma ditzaten eta Pentsio Sistema Publikoa ziurtatze aldera, beharrezko neurriak har ditzaten.

Beraz STEILASek dei egiten die euskal herritar guztiei, bereziki steilaskideei, Euskal herriko pentsionisten mugimenduak deitutako mobilizazioetan parte hartzera.

**Pentsio Sistema Publikoaren alde, pentsio duinak!!**



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus